

## **DIRU ITURRIAK:**

Negozio-proposamena ondo diseinatzeak eta modu egokian abian jartzeak, diru-sarrerak eta etekinak lortzea ahalbidetuko digu. Diru-sarrerak lortzeko aukera anitzak dauzka gure enpresak eta jarraian azalduko dizkizuegu.

Lehenik eta behin, Laboral Caixak emandako dirua izango dugu. Ekintzaileentzat eskaintzen duen finantzazioari esker, hasiera batean gure enpresa sortzeko, zein beharrezkoak ditugun eraikuntzak eraikitzeko ezinbesteko kapitala eskuratu ahal izango dugu, ondoren, pixkanaka bueltatuko diogularik.

Horrez gain, zerbitzuen kostuaren ondorioz irabazitakoa kontuan izan beharreko irabazi iturri bat da. Jarraian gure enpresaren zerbitzuak jasotzeko, hileroko kuotak zeintzuk diren jarriko ditugu. Adinen arabera, desberdintasunak egongo dira eta kuota familiarra ere izango dugu:

Gimnasioko sarrerak pertsona bakoitzaren beharretara egokitzea aproposena iruditu zaigu. Gainera, hainbat deskontu erabilgarri izango dituzte. Hala nola: haurren sarrera egun baterako 5,80€koa izango da eta helduena 11,50€. Familia-plana, aldiz, hilabeteko 43,40€ izango dira eta gazte txartela dutenez eta federatuek ere kopuru bera ordaindu beharko lukete hilabetero 18,80€, azkenik, bazkide txartela hilabetero 16,50€ izango lirakeke. Balio hauek kontuan izanda, eta gutxi gorabehera modu horretara ordainduz, 100 pertsona etorriko direla estimatuz eta hilabeteen guztira 500 pertsona etorriko direla pentsatuz, hilabetero 11.400€ inguru irabaziko ditugula ondorioztatu dezakegu. Gainera, ziurrenik, askok eta askok gimnasioko bazkideak izatea aukeratuko dute, horrek gerora dakarren aurrezkien eraginez. Bazkide izateak lehen aipatu bezala, 16,50€ balio du eta bataz besteko 400 pertsona bazkide egingo direla kontuan hartuta, irabaziak horrelakoak izango direla estimatzen dugu: 6.600€. Prezio guzti horiek zerrendako prezio motatakoak dira: produktu edo zerbitzu indibidualei jartzen zaien prezio finkoa.

Azkenik, sortutako energia ere irabazi-iturri bezala kontsideratu genezake; izan ere, GoiEner bezalako enpresengandik energia erosi behar ez izatea ahalbidetzen digu. Gure helburua, ahalik eta energia kupuru altuena gure kabuz lortzea da. Hasiera batean, gure makinengandik lortu nahiko genuke eta hala gertatuko ez balitz, teilatuan ditugun eguzki panelengandik eskuratu genuke. Hori horrela delarik, kirola egiteko makinek (30 makina energia mekanikoa energia elektriko bihurtzen dutenak, guztira 8000kWh), hiru eguzki panelek egunean (900w x 5 ordu eguzki, guztira 4500w sortuko dituzte) 7500w-eko energia sortuko dugula eta unitate bakoitzak 0.2167 €/kWh prezioa izango duela pentsatuz gero,

guztira, 6,61€/h irabaziaz izango genituzke; hilabeteko 4917,36€ko balioa izango lukeen energia kopurua lortuko genuke. Hala ere, prezio hori ez da izango berdina inoiz, dinamikoa da: eskaintza eta eskaeraren legearen arabera finkatzen da prezioa, hau da, denbora errealeko merkatuaren arabera.